


# Y DE PERFIL.



## BIZITZATIK LITERATURARA

Omar Nabarrororen poema liburuetan beti da bere izaera gu-nearen erdian. Ardatz bezala sub-jetibitatea eraikitzen da, bitalis-moz bizi eta pentsatzen duen sub-jetibitatea, Eta hauxe da abia-puntua, sakon sakonetik ikusi eta sentitutakoak ematen dio hasiera bere azken liburuari, oraindik ar-gitaragabe eta *Gaua zulatzen du-ten ahausietan* deiturikoan: "Gaur naizela inoiz baino baka-rrago" irakur dezakegu lehenda-biziko olerkian.

Pentsatzen dut, beraz banaiz adierazten zuen arraziona-lismotik, "sentitzen dut, beraz banaiz azaldu zigun erromanti-zismora, pentsakizunetik sensibi-litatera hedatzen den bide bihu-rrian badago oriandik toki -ez oso zabalik- bitalismorako. "Bi-zi naiz, beraz banaiz" esango li-guke bitalistak, bere bizitzaren sentipen inguruan sakoneko kal-be bati bezala eusten diolarik.

Hemendik datorkio behar bada Omar Nabarrororen poesiari duen nagusitasun eta duen ahul-tasuna. Bizitzaren bide okerrak eta zuzenak maite ditu, eta beraz barne espereintza desberdin bat hartzen du gaiatzat. Ez da bere bizitza azaleko sentipen baten ir-dui, beste irudikeri barnerakoia-go biltzen du espresagai. Agian erromantikoezia bihurtzen zaio gehienetan, nitasun gogor eta go-tor -eta batez ere zuzenegi- ho-rrren adierazpena. Baina ez da ho-rrelakorik gertatzen bere espe-rientzia lotzeko eta zaintzeko ahaleginetan ikusten dugunean bere poesia. Izadia sinbolizatuz ari denean, hizkera erreala ohiar-tzun surrealistaz janzten due-nean, poemaren sentiberatasuna, ikuspegi bital ugari hori, uniber-tsalizatzen saiatzen denean.

Hitz batetan esateko, poema klasizistak, neurtuak, sonetoak, egiten dituenean, Bizitza literatu-ra aldezteko unean...

JON KORTAZAR

Arratsalde honetako orduak  
 tabako hostoak bailiran  
 erre egin ditut  
 tristura horiskan bilduta  
 gauaren bota ilunak  
 zigarrokin muturra  
 zapaldu eta amata arte  
 Pertsianan behera amildu  
 da eguzkia zirrikitoz  
 zirrikito eta azkenean  
 piztu egin dut argia  
 tristurazko azken ke  
 ahokada kanpratuz astiro

### Martari

Su gabeko alderantzizko kea  
 lainoa, mendi maldetan behera  
 itsaso ferdearen erribera,  
 egunsentiko esku lehun askea;

emeki zabaltzen den atea,  
 zuhaitzien maitemin laztanbera,  
 lobelarrezko ametsen sendera,  
 burdin mailarik ez duzun katea.

deuseztu egiten den kubritxeta,  
 goizargia urratzen duen ganibeta,  
 begirik gabeko aurpegi mutu;

ainendi zeure magalean bustiz  
 oroimena gal, desegin neu guztiz,  
 betirako ez izatera lotu.

Hiltzean den argiaren odolak  
 hautsita inguratsaren zainak  
 urruneko horma urdina blaitzean,  
 kristalezko gurpil zorrotzak abiatuta  
 giharretako bide nekatuetan,  
 belartzan etzatera deitzen nau  
 suge nagien logura laberintikoak;  
 landare gautiarrak hazten orduan  
 neure erpuruetan, baso bilakatzeko  
 eta bertan bizirik diren basapiztiek  
 zeure haragia bilatzen dute.

Eztarria kixkaltzen didaten  
 arimadun beirazko gorputz hotzak,  
 besterik ez dute aurkitzen.

Epelak dira hemen arratsak  
 Fruituz asetuta baratzak  
 samurki laztantzen bizihatsak  
 Hurrun oraingo Herioren urratsak

Batzutan zer ote melankonia?  
 Hautsiz gauzekiko armonia  
 ahots ezkuturen baten afofia  
 Edo barruko zerbaiten agonia?

Itsastxorien hegalada arina  
 Arrantzale zaharren itsasmina  
 Aldi iraganari eutsi ezina  
 Lurrin bai baina hilik jazmina.



*"TROPICANA" bihotzean*

*Ron kolore horiskan zehar  
limoizkoagoak ziren zure  
ezpain gorriak,  
epelagoa perkutsioaren doinu laztana;  
denbora goragalea izan  
eta elkarren besoetara  
gonbitatu gintuen.  
Zihur genekien  
orkresta baldar hura  
ez zena karibetarra  
eta, baita,  
ez gintuela urrezko ezein hondartzak  
bilduko  
bere harea aluzinakorretan.  
Besoetako zure beltzetasuna  
neonezko argipetan,  
dardaraz, zilarreztatu ohi zen  
aldika.  
Marrazo errakorren baten hegatsak  
bihotzmotz utzi ninduen  
zure itsasoan  
murgildu ahala,  
arratsa hiltzear,  
sabaiko zerua arno kolorez  
tindatu zenean;  
koralezko haitz kresaltsuetan  
kiskali bide zen  
nire gorpuaren  
azken apurrik apurrena ere.*


*Nire gogoak  
barrikada erraldoia  
du erikita  
ozeanoa hasten deneko  
"Tropicana"ko ate hartan*

*Uztailak mertxika ihunez  
bete zituen ene ahurrak  
zeru sabala hari urtsuetan  
desegiten zen tenorean;  
heuretako uretan sekula  
murgildu bako ibaiak  
ziren zure begiak  
telurikoak bezain  
bustiak;  
haruntzaago, oihana  
oihartzun minteriotsuz betea  
hegazti ezezagunen hegal eremua,  
kristalezko hotskaleidoskopioa,  
lur usaina zerion zorabioa;  
egunsentian  
izpazterra,  
ninetan isladatutako  
eguzki izpietan blai  
eta nire bihotza izaroa  
eldarnio urez inguratuta.*



*Gauaren edabe iluna  
leunki labantzen labeetara  
eromen zulo goriataru  
aroak oratu harietan  
behera;  
odola da  
oroituz  
deika;  
haragiminez itotako odola  
suge hordia  
zainetako laberintoan  
zure labeetako epeltasunera  
eroan ezinik burua;  
aroak oratu die  
plazereen hariei  
sugea esnaraziz zainetan.*

*(edabearen bila  
abiatu da sugea)*



*Gogoratzen ote zara ortzia eta itsasoa  
elkarren besoetan desegiten diren une hartaz ?  
Gaurkoan ezpaina da, odoletan,  
ihidietaraino labanduz hedatzen den itzalak  
iluntasun ileguritsuz tindatzen dituenean mendi maldak;  
enarak iheska hegaldatzen dira, gaua buztanetan,  
marfil zorrotzezko hotsez eztenkatuz airea.  
Baso hostotsuetako laberinto zinbeletan barrena  
piztu egiten dira, izarniakorrak, izarrak  
gaupiztlen nini distiratsuetan.  
Oraintxe epelagotzen direlarik portuko harri kresaltsuak  
untzi zaitut neure oroitzapen itsasoan nabigatzen,  
ezinaren minak eraginda, uhara luzea utziz bertan.*

*Desagertu egin da uhara, ostenduz,  
itsasgainean nagiki etundako ilargiadarpean  
urrezko labain ezabatsua, laranja atal irudi.*

*Eta portuko hareatza hezetsua ere urrezkoa.*

*Odoleztatu egingo da mendien lepoa ekiaren isuriaz.  
Uhartetik abiatuko dira kaiok kairantz  
buztanez egunsentiaren norabidea marratuz  
desegiten ari izango den behelaino mehe  
zarpailtsuan. Ez da izanen ez uhasrarik ez  
ilargi adarrik, altzairuzko itsasgaina  
eguzki printzez ureztatua baino.*

OMAR NABARRO

Estos poemas, inéditos, forman parte del libro "gaua izulatzeko duten ahausietan". (En los ladrillos que taldan la noche), que ganó el premio Azkue de Poesía de 1985.